cristina enea
FUNDAZIOA

# Arteak eta zientziak bat egiten dute poloen urtzearen inguruan kontzientzia pizteko Cristina Enea Fundazioaren erakusketa berrian

*Fernando Moleres argazkilariak 'Urtzearen aztarna' argazki erakusketa berria aurkeztu du Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean. Argazkien eta bideo-instalazioen bidez, klima-aldaketaren ondorioz desagertu litezkeen eszena eta paisaia artiko eta antartikoak erakusten ditu. Egileak bisita gidatuak egingo ditu ostegun honetan, abenduaren 22an, komunikabideentzat (11:00etan) eta publiko orokorrarentzat (17:00etan).*



***Donostia, 2022ko abenduaren 21a.-*** Fernando Moleres (Bilbo, 1963) argazkilariak artearen eta argazkigintzaren boterean sinesten du hainbat gizarte-arazoren inguruan kontzientzia kolektiboa sortzeko, eta hori frogatzeko, Donostiara ekarri du 'Urtzearen aztarna' argazki erakusketa. Erakusketa horrek 34 argazki, bi olana handi eta bideo-instalazio bat ditu. *"Nire ustez, klima-aldaketaz hainbat ikuspegitatik hitz egin daiteke, eta guztiek dute funtzio bat, hau da, informazioa ematea gu ekintzara eramateko eta gizarte-mailan funtzionatzeko moduan aldaketak lortzeko"*, azaldu du, besteak beste, Eguneroko Bizitzako World Press Photo Saria eta Arte eta Entretenimenduko World Press Photo Saria jaso dituen argazkilariak. *"Komunitate zientifikoak oinarria eta informazio guztia ematen digu klima-aldaketak nora garamatzan jakiteko, eta artetik, maila bisualean, irudi ederrekin, baina desager daitekeen mundu hauskor bati buruz hitz egiten digutenak, kontzientziak astintzea ere lor daiteke"*.

Erakusketa Cristina Enean egongo da ikusgai abenduaren 22tik 2023ko martxoaren 5era arte, eta berotze globalak munduko bi gune berezitan uzten duen arrastoan jarri du arreta artistak. *"Poloetan jarri nahi izan dut fokoa, bai artikoan, bai antartikan, klima-aldaketa*

*gehien jasaten ari diren ekosistemak eta eremuak direlako, eta eragin handia duelako mundu osoan".*

Erakusketaren argumentu-haria *"izotz-eremu iraunkorrak aurkeztea da, nolakoa izango litzatekeen artikoa eta kriosfera berotze globalak aldatuko ez balitu"*. Horrela, erakusketaren ibilbide osoan zehar, berotze horrek Artikoari eta Antartikari nola eragiten dien erakusten du artistak, izotzak nola urtzen dituen, harik eta erakusketak iluntasunerantz eta beltzerantz pauso bat ematen duen arte, *"izotzen erabateko urtzea ilustratzen duen arte".*

Irudi horiek paisaia itzel eta ikusgarri horien edertasunaz hitz egiten digute. *"Paisaia horiek aldatzen zailak dirudite, baina, egia esan, hauskortasun handia erakusten dute"*, eta gizateria betiko galtzeko zorian egon liteke, kontsumo eta ekoizpen eredua dela eta. Hala ere, Moleresek aukera ematen du baikortasun-mezu bat zabaltzeko, batez ere belaunaldi gazteenei, *"kontzientziazioaren bidez gizarte-ekintza ekar lezakeen mezu bat".*

**Urtzearen aztarnak** erakusketak zentzumenak mugitzen dituzten lanez gozatzera gonbidatzen gaitu; batzuk, poetikoagoak, leiho irekiak dira; eta gehienekin, era batera edo bestera, galtzen ari den munduarekin lotutako hainbat gairi buruz hausnartuko dugu, krisi klimatikoak eraginda.

**Hedabide grafikoentzako eta publiko orokorrarentzako bisita gidatuak**
Erakusketa 2023ko abenduaren 22tik martxoaren 5era egongo da zabalik. Artistak bisita gidatua egingo du abenduaren 22an bertan, 11:00etan, komunikabideei zuzenduta (bertaratzea baieztatzea eskatzen da), eta publiko orokorrari, egun berean, 17: 00etan.

cristina enea
FUNDAZIOA

# Arte y ciencia se conjugan para concienciar sobre el deshielo polar en la nueva exposición de Fundación Cristina Enea

*El fotógrafo Fernando Moleres presenta en el Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea su nueva muestra fotográfica, 'La huella del deshielo', en la que, a través de instantáneas e instalaciones de vídeo muestra escenas y paisajes árticos y antárticos abocados a la desaparición por efecto del cambio climático. El autor realizará este jueves 22 de diciembre sendas visitas guiadas dirigidas a los medios de comunicación (11:00 h.) y al público general (17:00 h.).*



***Donostia / San Sebastián, 21 de diciembre de 2022.-*** El fotógrafo Fernando Moleres (Bilbao, 1963) cree en el poder del arte y la fotografía a la hora de crear una conciencia colectiva en torno a diferentes problemáticas sociales, y para demostrarlo, acude a San Sebastián con la muestra fotográfica 'La huella del deshielo', una exposición que cuenta con 34 fotografías, dos lonas de grandes dimensiones y una videoinstalación. *"Creo que del cambio climático se puede hablar desde varias perspectivas, y todas tienen una función, que es dar información para llevarnos a la acción y conseguir cambios en la forma de funcionar a nivel social"*, asegura el fotógrafo, galardonado con el Premio World Press Photo de Vida Cotidiana y el Premio World Press Photo por Arte y Entretenimiento, entre otros premios. *"La comunidad científica nos da la base y toda la información de hacia dónde nos lleva el cambio climático, y desde el arte, a nivel visual, con imágenes bellas pero que nos hablan de un mundo frágil que puede desaparecer también se puede conseguir agitar conciencias"*.

En esta exposición, que se podrá visitar en Cristina Enea desde el 22 de diciembre hasta el próximo 5 de marzo de 2023, el artista se ha centrado en el rastro que deja el

cristina enea FUNDAZIOA

calentamiento global en dos zonas del mundo muy particulares. *"Me he centrado en los polos, tanto en el ártico mo en la antártida, porque se trata los ecosistemas y de las zonas que más están sufriendo el cambio climático y tiene unas repercusiones importantes a nivel global"*.

El hilo argumental de la exposición es *"presentar las zonas de hielos permanentes, cómo sería el ártico y la criosfera si no estuvieran alteradas por el calentamiento global"*. Así, a lo largo de todo el recorrido de la exposición el artista muestra cómo ese calentamiento está afectando al Ártico y a la Antártida, cómo derrite sus hielos, hasta que la muestra da un paso hacia la oscuridad y el negro, que ilustra *"el derretimiento total de los hielos"*.

Se trata de unas imágenes que nos hablan de *"la belleza de esos inmensos e imponentes paisajes, que parecen difíciles de alterar, pero que en realidad presentan una gran fragilidad"*, un mundo que la humanidad podría estar a punto de perder para siempre, a causa de su modelo de consumo y producción. No obstante, Moleres se permite la licencia de lanzar un mensaje de optimismo, sobre todo a las generaciones más jóvenes, *"un mensaje que reclama la acción social a través de la concienciación".*

La muestra expositiva **La huella del deshielo** nos invita a disfrutar de unas obras que mueven los sentidos; unas, más poéticas, son ventanas abiertas; y la mayoría, de un modo u otro, nos hará reflexionar sobre varias cuestiones relacionadas con un mundo que se está perdiendo, afectado por la crisis climática.

**Visitas guiadas para medios gráficos y público general**

La exposición permanecerá abierta del 22 de diciembre al 5 de marzo de 2023. El artista realizará una visita guiada el mismo jueves 22 de diciembre a las 11:00 h., dirigida a los medios de comunicación (se ruega confirmar asistencia), y para el público general el mismo día a las 17:00 h.